

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LUIS ARANBURU MUSIKA ESKOLA ERAKUNDE AUTONOMOA

Ebazpena, zeinaren bidez onesten baitira 2022ko lan-eskaintza publikoko lanpostu bat lehiaketa-oposizio sistema baliatuz egonkortzeko deialdi berezia eta hautaketa-prozesua arautuko duten oinarriak

2022ko maiatzaren 13an, Luis Aramburu udal musika eskolako (UME) zuzendaritza kontseiluak eskaintza librearen bidez eskura daitezkeen dotazioen eskaintza onartu zuen, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan ildotik (2022ko maiatzaren 27ko ALHAO, 61. zenbakia).

Deialdi hau egonkortzeko hautaketa-prozesua da, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren ildotik.

Luis Aramburu udal musika eskola erakunde autonomoa da, toki erakunde autonomoaren izaera duena, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 85. bis artikuluan — abenduaren 16ko 57/2003 Legeak emandako idazkuntzan — aurreikusitakoaren ildotik.

Horren haritik, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak — Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua — 127. artikuluan aitortzen dizkidan eskumenez baliatuz, eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko ekainaren 21eko erabakiaren bitartez nire esku utzitako aginpidea betez, honako hau ebatzi dut:

1. Lehiaketa-oposizio sistemaren bidez erakunde autonomoko lanpostu bat lan-kontratudun langile gisa jabetzan betetzeko aparteko egonkortze-deialdia onestea (1. eranskina).
2. Hautaketa-prozesuaren deialdiaren oinarriak onestea, Luis Aramburu UMERako deialdiko plazak eta oinarri espezifikoak eranskina barne, zeina jarraian gehitzen baita (2. eranskina).
3. Deialdiaren oinarriak ALHAOn argitara daitezen agintzea.
4. Deialdiaren laburpen bat EHAAn eta BOEn argitaratzeko agintzea; BOEko argitalpenak emango dio hasiera eskabideak aurkezteko epeari.
5. Ebazpen honen kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, auziaren, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurtsoa ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko abenduaren 15ean

Luis Aramburu Udal Musika Eskolako lehendakaria
ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE

Lehiaketa-oposizio sistemaren bidez “Luis Aramburu” Udal Musika Eskolako fagot irakasle lanpostu bat lan-kontratudun langile gisa jabetzan betetzeko aparteko egonkortze-deialdi bereziaren oinarri orokorrak, 20/2021 Legeari dagozkion egonkortzeko eta bitartekotasun-tasa murrizteko prozesuen barruan

Lehena. Deialdiaren xedea.

1.1. Deialdi honen xedea da “Luis Aramburu EMMrako deialdiko lanpostuak eta oinarri espezifikokoak” eranskinean zehazten den fagot irakasle lanpostu huts bat lan-kontratudun langile gisa betetzea lehiaketa-oposizio sistemaren bidez; lehiaketa-oposizio bidez eskura daitezkeen dotazioen eskaintzari dagokio, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2 artikulua eta ildotik (2022ko maiatzaren 27ko ALHAO, 61. zk.).

1.2. Deialdi hau egonkortzeko hautaketa-prozesu berezia da, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren ildotik.

1.3. Deialdiari buruzko informazioa:

- Webgunean: www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprosesuak.
- Herritarrei laguntzeko bulegoetan: San Antonio kaleko 10.ekoa, gizarte etxeak, Ariznabarreko kiroldegia eta udalaren bulego teknikoak (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25).
- Argibideetarako telefonoan: 010 (Gasteiztik deituz gero), edo 945 161616 (Gasteiz kanpotik).
- Deialdi honi berariaz eskainitako herritarren postontzian.

Bigarrena. Betekizunak.

Betekizun hauek guzti-guztiak bete beharko dituzte izangaiek:

2.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako espainiar nazionalitatea edukitzea, edo Europar Batasuneko estaturen batekoa, edo Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen arabera langileen joan-etorri librea aplikagarri zaion herrialderen batekoa izatea.

Orobat, parte hartu ahalko dute Europar Batasuneko estatuetakoren bateko hiritartasuna dutenen ezkontideek (zuzenbidez banatuta ez badaude), baita haien ondorengoek nahiz ezkontideen ere, baldin eta bi ezkontideak zuzenbidez banatuta ez badaude eta ondorengo horiek hogeita bat urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak izanda ere gurasoen kontura bizi badira, baita legezko bizitokia Espainian duten atzerritarrek ere.

Lan-kontratudun langileen lanpostuak lortzeko, aurreko paragrafoetan sartuta ez dauden atzerritarrek ere hartu ahalko dute parte, baldin eta legezko bizilekua Espainian badute.

2.2. Eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretik hamasei urte beteta edukitzea, eta nahitaezko erretirorako adinera iritsia ez izatea.

2.3. “Luis Aramburu” Udal Musika Eskolako lan-kontratudun langile finkoa ez izatea lortu nahi den lanpostuari dagokion kategoria berean.

2.4. Eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako dena delako lanposturako eskatzen den titulazio akademiko ofiziala —edo horren baliokidea edo homologatua— edukitzea edo hura

eskuratzeko ordaindu beharrekoa ordainduta edukitzea, eta lanpostu bakoitzaren berariazko oinarrietan adierazitako gainerako betekizunak ere betetzea, berariazko oinarriek beste epe bat ezarri ezean.

2.5. Dosier zigortzaileraren bat dela medio administrazio publikoen zerbitzutik baztertuta ez egotea, ezta funtzio publikoak betetzeko gaitasungabetuta ere, ez eskabideak aurkezteko epean, ez hautaketa-prozesuaren zati batean edo osotasunean.

2.6. Zereginak burutzeko gaitasun funtzionala edukitzea, eta lanpostuari dagozkion zereginak egitea galaraziko lukeen osasun arazorik ez edukitzea. Segurtasun, Higiene eta Ergonomia Zerbitzuak erabakiko du gaitasuna, lanpostuaren arabera.

2.7. Deialdiko lanpostuen hizkuntza-eskakizunak (euskara). Hizkuntza-eskakizuna betetzeko data igaroa duten lanpostuak eskuratu nahi dituzten edo hori merezimendu gisa balioestea nahi duten izangaiek duten maila Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatua ez badute, hautaketa-prozesuan behar den hizkuntza-eskakizuna lortzeko deitzen diren probetara aurkeztu ahalko dira, izena emateko formularioan hala adierazita, edo egiaztatua dutela nahiz salbuetsita daudela adierazten duen ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute. Hizkuntza-eskakizunaren egiaztatzea aurkezten dutenen kasuan, deialdiko lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko lehen proba baino lehenagokoa izan beharko da egiaztatua duten hizkuntza-eskakizun horren data. “Luis Aramburu UMERako deialdiko lanpostuak eta oinarri espezifikak” eranskinean zehazten da zein lanpostutan egiaztatu behar den dagokion hizkuntza-eskakizunak eskatzen duen maila. Egiaztapen-probetan parte hartzeko, izena emateko inprimakiaren bidez eskatu behar da, eta gutxienez 25 puntu aitortuak izan. Ez da onartuko lortu nahi den lanposturako eskatzen dena baino hizkuntza-eskakizun handiagoa egiaztatzeko eskabiderik.

2.8. Inskripzio-tasekin lotutako betekizuna. Hutsik dauden lanpostuen jabe izango direnak hautatzeko lehiaketa, oposizio eta oposizio-lehiaketetan parte hartu ahal izateko Gasteizko Udalak finkatuak dituen tasak (7.13 tasa) ordaindu izana (zein titulazio taldeetarako lehiatzen den, horri dagokiona) eskabideak aurkezteko epearen barruan.

Hirugarrena. Eskabideak aurkeztea.

3.1. Hautatze-probetan parte hartu nahi dutenek udalaren webgunean tramitatu beharko dute eskabide elektronikoa: www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprosesuak.

3.2. Eskabideak aurkezteko 20 egun balioduneko epea egongo da, deialdiaren iragarkia BOEn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

3.3. Probak zein hizkuntzatan —euskaraz ala gaztelaniaz— egin nahi dituzten adierazi beharko dute izangaiek eskabidean. Atal horretan ezer adierazten ez badute, probak gaztelaniaz egin nahi dituztela ulertuko da.

3.4. Azterketa egiteko ordaindu beharreko tasak. Zein lanpostutarako izena ematen duen, titulazio-talde horretakoei dagokien kuota ordaindu beharko du izangai bakoitzak, izena emateko unean indarrean dagoen udal ordenantzaren arabera, eta bertan ezarritako salbuespen eta murriztapenak kontuan hartuz.

3.5. Tasaren ordainketa nominala izango da, eta indibidualizatua lortu nahi den plaza bakoitzeko. Eskabidea aurkezten denean jasoko den ordaintzeko agindua baliatuz ordainduko da.

3.6. Agiri bidez eta horretarako egiten den probaren bidez lanposturako eskatzen den hizkuntza maila dutela egiaztatzen dutenek derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetara zein ez dutenetara sartu ahalko dira. Ikus 11.4. eta 11.5 oinarriak.

3.7. Parte hartzeko eskabideari ez zaio erantsi beharko ez betekizunei ez lehiaketa-faserako merezimenduei dagokien agiririk. (Egiaztatzeko dokumentazioa aurkezteari dagokionez, ikus 9. oinarria).

3.8. Eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdian eskatutako baldintzak eta betekizunak onartzeko konpromisoa. Inork datu faltsurik ematen badu aurkeztutako dokumentazioan, hautatze-prozesutik kanpo utziko da.

3.9. Eskaera aurkezteak baimena ematen dio epaimahai kalifikatzaileari eskatzailearen izenean behar diren erregistro ofizialak eta erakundeak kontsultatzeko, merezimendu eta/edo betekizun gisa alegatutako informazioak egiaztatzearen.

Laugarrena. Borondatezko ariketak eta egokitzapenak.

4.1. Borondatezko euskara-proba. Dagokion egiaztagiria ez dutelarik hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak egin nahi dituzten izangaiek —betekizuna nahiz merezimendua izan— eskabidean adierazi beharko dute; izan ere, ez zaie horietan parte hartzeko aukerarik emango eskabideak aurkezteko epean hala adierazten ez dutenei. Eska daitekeen gehieneko maila lortu nahi den plazari dagokiona da.

4.2. Probetan egokitzapenak egitea behar dutenek eskabidearen oharren atalean adierazi beharko dute, eta Giza Baliabideen Sailari posta elektronikoz jakinarazi, (procesos.selectivos@vitoria-gasteiz.org); idazkian, desgaitasun mota eta eskatzen den egokitzapena zehaztu beharko da, eta proba egitekoa den eguna baino 10 egun baliodun lehenagotik gutxienez jakinarazi beharko da hori.

4.2.1 Proben egokitzapenak, desgaitasuna dela eta. Desgaitasuna aitortua dutenek eskatu ahal izango dituzte. Hautatze-probak egiteko beharrezko diren denbora- eta baliabide-egokitzapenak egingo ditu epaimahaiak. Nolanahi ere, ezingo du proba horien edukia itxuragabetu, ezta eskatu beharreko gaitasun-maila jaitsi edo murriztu ere, ekainaren 9ko PRE/1822/2006 Aginduan aurreikusitakoaren arabera; agindu horren bidez, irizpide orokorrak ezartzen dira desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikora sartzeko hautaketa-prozesuetan denbora gehigarriak egokitzeko.

4.2.2. Amatasunagatiko egokitzapenak. Haurdunaldian edo edoskitzaroan daudenek eskatu ahal izango dute.

4.2.3. Egokitzapenak irakurritakoaren ulermenean eragiten duten irakurketaren eta idazketaren nahasmenduak direla eta. Egokitzapena egiteko eskatu beharko dute. Egokitzapen hauek egingo dira: Arial 12ko koadernotxoak erabiltzea, eta proba osorik edo zati batean ozenki irakurtzeko eskatu ahal izatea. Probaren jarraibideak eta azterketaren eredu-orria —test erakoa bada— aldeztu aurretik argitaratuko dira.

Bosgarrena. Izangaiei zerrenda.

5.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, izangaiei behin-behineko zerrendak onetsiko ditu “Luis Aramburu” Musika Eskola erakunde autonomoko lehendakariak, eta egoitza elektronikoa

(“Nire hautaketa-prozesuak”) argitaratzeko aginduko, bidenabar adierazten delarik izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dutela akatsak zuzentzeko, halakorik gertatu bada.

Seigarrena. Epaimahai kalifikatzailea.

6.1. Espezialitate bakoitzeko erreferentziako epaimahai bakarra izango da. Hauek osatuko dute epaimahaia: lehendakaria (edo hark ordezeko izendatzen duena), hiru teknikari, eta idazkaria (eta haien ordezekoak).

6.2. Inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioa bete beharko dute epaimahaikoek.

6.3. Aholkulariak hartzerik izango du epaimahaiak hala egitea beharrezkotzat jotzen duen saioetarako. Beren espezialitate teknikoetan baino ez dira arituko aholkulari horiek. Gizonak nagusi diren lanbideei dagozkien hautaketa-prozesuetan, epaimahaiak berdintasunari buruzko aholkularitza izango du nahitaez.

6.4. Gizonezko eta emakumezkoen arteko oreka izan beharko du epaimahaiak, hau da, gutxienez ehunetik 40 izan beharko dute batzuek nahiz besteek, hori egoki ez dela justifikatu ezean.

6.5. Beharrezko diren neurriak hartuko ditu epaimahaiburua epaimahaiaren aurrean irakurtzekoak ez diren eta balorazio automatikoa izango ez duten oposizio-faseko idatzizko ariketak zein izangairenak diren jakin gabe zuzentzen direla bermatze aldera.

6.6. Epaimahaiak erabakiko ditu arau hauek aplikatzean sortzen diren zalantzak oro, baita arautu gabeko kasuetan nola jokatu ere.

6.7. Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa. Berdinketarik izanez gero, epaimahaiburua kalitateko botoa izango du; idazkariak, berriz, prozedura-gaietan baino ez du botoa izango.

6.8. Eskatzaileen behin-behineko zerrendarekin batera emango da argitara epaimahaikide eta ordezekoen izenen zerrenda.

6.9. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen esku utziko da hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probak egitea. Egiaztapen horren ondoretarako, mahaikide bat izendatuko da, aipatutako erakundeak proposatuta.

6.10. Epaimahaia ezingo da eratu, ezta jardun ere, bertako kideen erdia baino gehiago, titular nahiz ordezeko, bertan ez badira. Gainera, ezinbestekoa izango da epaimahaiburua eta idazkaria bertan izatea.

6.11. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako kasuetan, epaimahaikideek ezingo dute parte hartu, eta deialdia egin duen agintariari eman beharko diote horren berri. Gainera, izangaiek haiek errefusatzeari izango dute.

6.12. Izangairen batek deialdian ezarritako betekizunen bat betetzen ez duela jakiten badu epaimahaiak hautatze-prozesuko edozein unetan, hura baztertzeko proposamena egin beharko dio horretarako eskumena duen organoari —aldeztatik aurretik interesdunari entzunaldia eskaini beharko dio—, izangaiek egindako okerren nahiz faltsutasunen berri ematen diolarik.

6.13. Prozesuaren edozein faseri dagokion jatorrizko dokumentazioa eskatu ahal izango du epaimahaiak hautatze-prozesuko edozein unetan, edozein epaimahaikidek hala eskatzen badu.

6.14. Epaimahaiko lehendakaria edo haren ordezkoa ordeztu beharra badago —kargua hutsik geratu delako, bertan ez direlako, gaixorik daudelako edo legezko beste edozein arrazoiengatik—, maila goreneko epaimahaikidea izango da ordezkoa, eta maila berekoen artean, zaharrena. Epaimahaiko idazkaria ordeztu beharra badago, epaimahaiak gehiengoz erabakitzen duen kideak ordeztuko du.

6.15. Egoitza elektronikoa (“Nire hautaketa-prozesuak”) izango da erabakiak, deiak, ariketen egun-orduak nahiz bestelakoak argitara emateko lekua: www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak.

6.16. Lehenengo saioan, barne funtzionamendurako araudia onetsiko du epaimahaiak.

Zazpigarrena. Ariketen nondik norakoak eta komunikazioak.

7.1. Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak) egongo dira eskuragarri “Deialdiaren barruko lanpostuak eta oinarri espezifikoak” eta “Gai-zerrendak” eranskinak; orobat, bertan jarriko dira eskuragarri zereginen katalogoak eta egokitzen jotzen den gainerako dokumentazioa.

7.2. Izangai guztiek batera egiterik ez dagoen ariketetan, abizenen arabera zehaztuko da banaka edo taldeka jarduteko hurrenkera, Administrazio Publikorako Estatu Idazkaritzaren ebazpenean —ariketarako deialdia egiten den egunean indarrean dena— zehaztutakoari jarraituz.

7.3. Dei bakarra egingo zaie izangaiei ariketa bakoitzerako, 7.7 oinarrian jasotzen diren egoerak salbu. Epaimahaiak nahitaezko probak egiteko zehazten dituen egun, ordu eta lekuetan agertzen ez direnak hautatze-prozeduratik baztertuta geratuko dira besterik gabe. Berdin jokatu da nahitaezko probetara haiek egiten hasi ondoren agertzen direnekin. Nahitaezko probek ariketa bat baino gehiago badute, horietako edozeinetara ez agertzea edo berandu agertzea joko da ez agertzetzat.

7.4. Nortasun agiria, pasaportea edo gida-baimena eraman beharko dute izangaiek probetara, eta edozein unetan eskatu ahal izango die epaimahaiak erakusteko; orobat, epaimahaiak proba bakoitzerako ezartzen dituen materialak eraman beharko dituzte.

7.5. Ariketak ezingo dira hasi deialdi honen iragarpena BOEn argitaratzen denetik hiru hilabete igaro aurretik. Lehen ariketa egiteko lekua, eguna eta ordua gutxienez hamar egun baliodun lehenago iragarriko dira, egoitza elektronikoan (“Nire hautaketa-prozesuak”).

7.6. Prozesuan aurkeztutzat agertzen diren pertsonen joan beharko dute probetara, aurreko probak gaindituak dituztelarik, baita, kautelazko neurri gisa, epaimahaiari emaitzen kontrako alegazioa edo erakunde autonomoko lehendakariari berraztertze errekurtsua aurkeztu diotenek edo aurkeztekotan direnek ere, baldin eta artean hura ebatzi ez bada. Kasu batean nahiz bestean, hautatze-prozesuan jarraituko dutela jakinarazi beharko diote epaimahaiari, beharrezkoak diren baliabideak eta materialak jar ditzan. Kautelazko neurri gisa egindako frogetan lortutako emaitzak dosierrean gordeko dira, baina ez dira publikoak izango. Eragindako izangaiek epaimahaiak ezartzen duen helbide elektronikoaren bidez kontsultatu ahal izango dituzte. Prozesua amaituta, eskaera onetsi ez bada, dosierra artxibatu egingo da eta, betekizunei eragiten badie, baliogabetuko.

7.7. Aparteko deialdiak. Kasu hauek eragindako pertsonen aparteko deialdi batera deitu beharko die epaimahaiak: deitutako proba egin aurretik erditzea (erditze-data proba egiteko data baino 15 egun

natural lehenagokoa delarik gehienez), edo aurreikusitako datan proba egitea eragotzi duen ezinbesteko arrazoiren bat, epaimahaiak aintzat hartu badu. Deialdi nagusia egin ondoren 15 egun natural baino laburragoa eta 40 egun baino luzeagoa ez den epe baten barruan egin beharko da. Epaimahaiak probaren ezaugarriak egokituko ditu, eta behar diren egokitzapen pertsonalak hartuko dira kontuan.

7.8. Aurreko paragrafoaren ondorioetarako, ezinbesteko kasutzat hartuko da, ezusteko kasua ez izan arren, proba edo azterketa bat egitea eragozten duen egoera, baldin eta ohiz kanpokoa, saihestezina eta aurreikusi ezina bada. Apartekoa eta naturala, zeinean ez baitu izangaiaren borondateak esku hartzen, harentzat guztiz arrotza baita, eta aurka egiterik ez baitu. Proba egiten denetik 3 egun baliiodun igaro baino lehen informatu eta jakinarazi beharko zaio epaimahaiari. Kasu horietan, epaimahaiak pertsonaren egoera baloratuko du, prozesuan parte hartzerik izan dezan bermatzearren, bai eta neurri horrek hautaketa-prozesuan nagusi izan behar duen berdintasun-printzipioan izan dezakeen eragina ere, berez lehiakorra den prozesu batean parte hartzen duen kolektiboa izanik.

7.9. Hautatze-prozesuaren garapena antolatzeko orduan, austeritate- eta bizkortasun-printzipioak aplikatuko ditu epaimahaiak bere jardunean; horrek ez du eragotziko Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan xedatutako printzipioak betetzea.

7.10. Ezingo da epaimahaikideekin banaka harremanetan jarri, ez zuzenean ez hirugarrenen bitartez, hautaketa-prozesuarekin zerikusia duen edozein gaiz aritzeko. Hautaketa-prozesuaren inguruan sor daitezkeen gorabeherak idatziz azalduko zaizkio epaimahaiari, eta hark erabakiko du dagokiona, kide anitzeko organoa den aldetik.

7.11. Inork probetako edozein normaltasunez garatzea eragozten duen iruzurrezko jarduerarik egiten badu, edo berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera lehia desleiala sortzen duenik, epaimahaiak hautaketa-prozeduratik kanpo utzi ahal izango du, eta jardun horiek bilkura-aktan jasoko ditu. Hautaketa-prozesuko edonolako proba mota egiten den bitartean, ez da onartuko lehen aipatutako printzipioak saihesteko erabil daitezkeen bitarteko eta/edo gailu elektronikoak eduki edo erabiltzea. Izangai batek agindu horiek betetzen ez baditu, berehala kanporatuko da, bai probatik, bai hautaketa-prozesutik, eta ez da, inola ere, horren ondoriozko lan-poltsan sartuko.

Zortzigarrena. Hautatze-prozesua.

Hautatze-prozesuak bi fase izango ditu: lehiaketa eta oposizioa.

A. Oposizio-aldia: lor daitezkeen gehieneko puntuazioa, 60 puntu. Bi ariketa izango ditu, nahitaezkoak eta baztertzailak, bi ariketen puntuazioaren baturak 20 puntu gainditzen ez baditu.

LEHEN ARIKETA: Nahitaezkoa. Gehieneko puntuazioa: 30 puntu.

Izangaiak eskola eman beharko diote Musika Eskolako 2. mailako ikasle bati. Gutxienez 15 minutu eta gehienez 30 iraun beharko du saioak.

BIGARREN ARIKETA: Nahitaezkoa. Gehieneko puntuazioa: 30 puntu.

Lehiakideak berak aurkeztutako estilo ezberdinetako hiru obretatik bi jotzea. Laguntzailea berekin ekarriko du lehiakideak, behar izanez gero. Azterketa egiteko unean aurkeztu beharko ditu lehiakideak obra horiek. Hain zuzen ere, aurkeztutako obra bakoitzaren 5 ale ekarri beharko ditu aldean, epaimahaiari emateko.

B. Lehiaketa-fasea: lortu daitekeen gehieneko puntuazioa, 40 puntu.

B.1. Esperientzia espezifikoa, bereizia eta hurrengo atalean aipatutako esperientzia orokorraren osagarria, deitutako plazari dagozkion lanpostuetan 2012ko abenduaren 31tik aurrera "Luis Aramburu" Udal Musika Eskolan emandako zerbitzuengatik, "Luis Aramburu UMERako deialdiko lanpostuak eta oinarri espezifikoa" eranskinean jasotako kodeen (LAKO) arabera (ikus VGU Esp. zutabea "Luis Aramburu UMERako deialdiko lanpostuak eta oinarri espezifikoa" eranskinean); gehienez 20 puntu, eguneko 0,008 puntu kontatuta.

B.2. Esperientzia orokorra. Edozein administrazio publiko nahiz erakunde eta entitate publikotan 32012ko abenduaren 31tik aurrera karrerako funtzionario, bitarteko funtzionario edo lan-kontratuko langile gisa emandako zerbitzuengatik, "egindako zerbitzuen ziurtagiriaz" egiaztatuta, eta, betiere, azpitalde berean edo titulazioko lantalde profesional berean izanik, antzeko funtzioak eta antzeko jakintza-arloetan garatzen dituen lanpostu batean eman badira, epaimahaiak eskaintako lanpostuarekin parekatu ahal izateko moduan, edozein harreman juridikoren pean, salbu eta zerbitzu zibilak edo merkataritza-zerbitzuak alokatzeko kontratuak, bekak eta prestakuntza-praktikaldiak; gehienez 20 puntu, eguneko 0,006 puntu kontatuta.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren egindako zerbitzuak ez dira zenbatuko, eta eguneko kontratu bakarra zenbatuko da.

C. Deialdiaren xede den lanposturako hautaketa-prozesuak gainditzea "Luis Aramburu" Udal Musika Eskolan. Gehienez 5 puntu:

- EPEko deialdian oposizio-fasea gainditzea: 5 puntu.
- EPEko deialdi batean oposizio-faseko lehen ariketa gainditzea: 3 puntu.
- Erreferentziazko aldi baterako kontratazioetarako zerrendaren deialdian oposizio-fasea gainditzea: 2 puntu.

D. Euskara: 15 puntu. Euskara jakitearen balioespena. Egiaztatutako hizkuntza-eskakizunaren (HE) arabera balioetsiko da; lor daitekeen gehieneko puntuazioa lanpostuari dagokiona izango da.

- B1 (1. HE): 5 puntu.
- B2 (2. HE): 10 puntu.
- C1 (3. HE): 15 puntu.

Bederatzigarrena. Egiaztagiria aurkeztea.

9.1. Eskumena duen organoak emandako ziurtagirien bitartez egiaztatu beharko dira administrazio publikoetan egindako zerbitzuak (lanpostua, zereginak eta denbora adierazi beharko dira bertan). Ez dira aintzat hartuko lan-esperientziaren alorreko merezimenduak honako hauek berariaz adierazten ez badira:

- Betetako lanpostuaren izena eta lanbide kategoria.
- Kontratazio-aldien hasiera- eta bukaera-datak.
- Lanpostuaren zeregin nagusiak, kategoria adieraztea aski deskriptiboa edo erreferentziazkoaren aski antzekoa ez dela uste izanez gero.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetan egindako zerbitzuak epaimahaiak ezarritako moduan eta unean alegatu beharko dira beti, baina interesdunek ez dituzte egiaztatu beharko, ofizioz egiaztatuko baitira.

9.2. Lehiaketa-faseko merezimenduak egiaztatzeko eta deialdiko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko behar diren agiriak epaimahaiari aurkeztu beharko zaizkio, hark ezartzen duen moduan eta epean.

9.3. Ezinbesteko kasuetan izan ezik, baldin eta izangaiak agiri horiek aurkezten ez baditu adierazitako epean, edo eskatzen diren baldintzak eta betekizunak betetzen dituela egiaztatzen ez badu, ezin izango da izendatu, eta bertan behera geratuko dira haren jarduerak oro; horrek ez du galaraziko, gainera, eskabidean datu faltsuak emateagatik erantzukizunak eskatzea. Hala gertatuz gero, hautatze-prozesua gainditu dutenen arteko hurrengoak (azken puntuazio-hurrenkerari jarraituz) izendatzeko proposamena egingo du eskumena duen organoak, bete beharreko lanpostu guztiak bete arte (5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 61.8 artikulua).

Hamargarrena. Emaizak argitaratzea.

10.1. Epaimahaiaren argitalpenak egoitza elektronikoan egingo dira (“Nire hautaketa-prozesuak”).

10.2. Epaimahaiarekiko komunikazioak posta elektronikoz egin ahalko dira, eta baliozkoak izango dira baldin eta eskabidean ondorio horietarako erregistratu den helbide elektronikotik bidaltzen badira, eta zuzen hartu dela bermatzen duen erantzuna jaso bada posta elektronikoz. Alegazioak edo erantzunak jaso izanaren baieztapena —bi noranzkoetan— ezinbestekoa da komunikazioa baliozkotzat jotzeko. Epaimahaiak erreferentziako helbide elektronikoa adieraziko du bere argitalpenetan, eta gaian erabiltzeko kodeak ere ezarri ahalko ditu, mezuak hobeto kudeatu eta antolatzearren.

10.3. Jakinarazpenak posta elektronikoz igorritik jakinaraziko zaie deialdi jakin batera aurkezten diren izangai guztiei egoitza elektronikoan (“Nire hautaketa-prozesuak”) argitalpen berriak egin direla. Abisuak ez jasotzeak ez du baliogabetu edo aldatuko argitalpenean ezarritako epea.

10.4. Proba idatziak bukatutakoan, baldin eta test modukoak izan badira, galdera-koadernotxoak eta erantzun zuzenen behin-behineko orria argitaratu ditu epaimahaiak, eta bost egun balioduneko epea emango akatsak berrikusteko. Jakinarazitako akatsak kontuan izanik, epaimahaiak behin betiko erantzun-orria onetsiko du, eta horren ondoren ariketa edo proba irakurri eta kalifikazioa jarriko. Emaizak argitaratu ondoren 3 egun balioduneko epea emango da gutxienez irakurketa akatsak erreklamatzeko, halakorik bada.

10.5. Idatzizko probak test erakoak ez badira, 2 egun balioduneko epea emango da probaren edukiaren kontrako alegazioak aurkezteko, eta behin-behineko emaitzak argitaratu ondoren beste 2 egun balioduneko epea emango da dosierra eskuratu ahal izatea eskatzeko; behin-behineko emaitzaren kontrako edozein alegazio aurkeztu aurretik egin beharko da hori. 10.2 oinarrian ezarritako prozedurari jarraituz eskatuko da dosierra eskuratzea. Dagokion prezio publikoen eta tasen ordenantzak ezartzen duen tasa ordaindu ondoren, posta elektronikoa jaso eta epaimahaiari jakinarazten zaionetik bi egun balioduneko gehieneko epean, ariketaren kopia, zuzenketa-irizpideak eta horien aplikazioa jasoko dira gutxienez, PDF formatuan. Alegazioak aurkezteko epea bost egun baliodunekoa izango da, dokumentazioa jasotzen denetik.

10.6. Horretarako epearen barruan izangaiek aurkezten dituzten berrikuspen-eskabide eta erreklamazio guztiak epaimahaiak ariketetako bakoitzaren behin betiko emaitzak onesteko hartzen duen erabakian aintzat hartu eta erantzun dituela joko da. Ez da erantzun pertsonalizaturik emango.

10.7. Azterketa- eta merezimendu-faseak burutu ondoren, proba guztiak gainditu dituzten lehiakideen zerrenda argitaratuko du epaimahaiak, guztira lortutako puntuazioen arabera hurrenkeran, ariketa bakoitzean lortutako puntuak nahiz azken puntuazioak zehaztuta.

10.8. Behin betiko emaitzei buruzko erabakiaren kontra gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango dute izangaiek, "Luis Aramburu" Udal Musika Eskolako lehendakariaren aurrean, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Hamaikagarrena. Lanpostuak esleitzea.

11.1. Eskaintako lanpostuak interesdunen eskaeren arabera esleitu dira, hautaketa-prozesuan lortutako hurrenkeraren arabera, baldin eta lanpostuen zerrendan lanpostu bakoitzerako zehaztutako betekizun objektiboak betetzen badituzte.

11.2. Destinoen eskaintza, lanpostu/atal organiko/derrigortasun terminoetan ulertuta, eskaintzaren eta haren handitzearen oinarri izan ziren dotazioena izango da. Destino jakin batean eskaintzaren bidez bete diren dotazioak baino dotazio gehiago badaude, [lanpostu hutsa arauz betetzeagatik behin-behineko atxikipenen amaierari buruz indarrean dagoen protokoloa](#) aplikatuko da.

11.3. Ez dira derrigorrezko data betearen lanpostutzat joko eskaintza argitaratu zen unean horrelakorik ez zutenak, hautatze-prozesua bukatutakoan haien egoera zein den gorabehera.

11.4. Lan-kontratudun langile izendatzeko proposatu diren pertsona guztiei destino bat esleitzen zaiela bermatzearen, destinoak aukeratzeko unean hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez duten eta aukeratzeko dauden izangaien kopurua eta hizkuntza-eskakizunik ez duten destinoen kopurua bera bada, hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten eta aukeratzeko dauden izangaiek eskakizun hori duten lanpostuen artean aukeratu beharko dute. Hori ez da aplikatuko lanaldiaren ehuneko desberdina duten lanpostuetan.

11.5. Puntuazioak direla eta aurkeztutako erreklamazioak aztertu ondoren, izendapen-proposamenak argitaratuko ditu epaimahai kalifikatzaileak, honako alderdi hauek aintzat hartuta: titulazio-betekizunak betetzeari eta hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeari buruzko txostenak; eskaintako lanpostuak eta Segurtasun, Higiene eta Ergonomia Zerbitzuak emandako gaitasun-kalifikazioak (2.5. oinarria); lehiaketa- eta oposizio-faseetan lortutako emaitzak; dauden txandak; dotazio bakoitzaren betekizunak betetzen dituzten izangaien lehentasunak, puntuazioaren hurrenkera hierarkikoa eta aurreko oinarrian adierazitako esleipen-irizpideak. Nolanahi ere, izangaien kopuruak ezin izango du eskaintako lanpostuen kopurua gainditu.

11.6. Lehentasun klausula.

Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 27.2. artikuluan eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak —Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea bigarren aldiz martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatua— 20. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, gaikuntza-maila bera izanez gero, lehentasuna emango zaie emakumeei emakumeen presentzia ehuneko 40tik beherakoa den kidego, eskala, maila eta kategorietan, salbu eta beste hautagaiarengan bestelako arrazoirik egokitzen bada —sexu bereizkeriarik gabe—, neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duenik, hala nola lana lortzeko zailtasun bereziak dituztenen multzoetakoren batekoa izatea.

Ondorio horietarako, izangaien artean gaitasun bera dagoela ulertuko da hautaketa-prozesuaren azken puntuazioan berdinketa gertatzen denean, hau da, kasuan kasuko merezimenduak batu ondoren.

11.7. Berdinketa hausteko irizpideak:

11.7.1 Oposizio-fasean (A fasea) puntuazio handiagoa izatea.

11.7.2 B.1 atalean puntuazio handiena izatea. (esperientzia espezifiko)

11.7.3 "Luis Aramburu" Udal Musika Eskolan deialdiaren xede den lanpostuan lan egindako egunen kopurua handiagoa izatea.

11.7.4 B.2 atalean (esperientzia orokorra) puntuazio handiagoa izatea.

11.7.5 C atalean (beste merezimendu batzuk) puntuazio handiagoa izatea.

11.7.6. Estatuko administrazioaren zerbitzuan sartzeko erregelamenduan aipatzen den zozketaren emaitza argitaratzeko Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzaren ebazpenean zehazten den eta berdinketa haustean indarrean dagoen letra.

Hamabigarrena. Izendapen proposamena eta kontratua formalizatzea.

12.1. Agiriak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta 30 egun balioduneko epean gehienez, hautatze-prozesua gainditu dutenak kontratatze proposamena egingo du epaimahaiak, azken puntuazio-hurrenkerari jarraituz, bete beharreko lanpostu guztiak bete arte (5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 61.8 artikulua).

12.2. Lanpostu horiei dagozkien aldi baterako kontratazioen bukaera Aldi Baterako Kontratazioetarako Zerrenden Araudiaren 25. artikuluari jarraituz zehaztuko da, edo hori garatzeko protokoloan xedatutakoaren arabera (ikus 11.2.). Ondorio horietarako, ez dira okupatu daitezkeen dotaziotzat hartuko dagoeneko enplegu publikoaren eskaintzetan konprometituta daudenak.

12.3. Epaimahaiak kontratazio-proposamena egin eta lanean hasteko data zehaztu eta argitaratu ondoren, izendatutako pertsonak kontratua formalizatu beharko du, horretarako ezarritako epean, eta gehienez 30 egun baliodun atzeratu ahalko du, lanean hasteko data argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

12.4. Lanpostuaz jabetu aurretik, bateraezintasunik ez duela aitortu beharko du. Adierazitako epean lanpostuaz ez jabetzeak —arrazoi justifikaturik gabe— lanpostuari uko egin zaiola esan nahiko du. Halakoetan, beste izendapen bat proposatuko du epaimahaiak.

12.5. Jaiotzagatiko baimena: ume batez erditu delarik izangaiak lanpostuaz jabetzerik ez badu, lanean hasteko unea atzeratu ahalko du jaiotzagatiko eta edoskitzeagatiko baimena baliatzeko, une horretan gainerako udal langileentzat araututako iraupenaren arabera, erditzearen egunetik aurrera. Edonola ere, ondorio ekonomiko eta administratiboak promozioko gainerako kideen datetara atzeratuko dira.

12.6. Destinoek behin betiko izaera izango dute, eta lehiaketa bidez lortutakoen baliokideak izango dira ondorio guztietarako.

12.7. Ezarritako epean kontratua formalizatzen ez dutenek galdu egingo dituzte "Luis Aramburu" Udal Musika Eskolako mugarik gabeko lan-kontratudun langile izateko eskubideak, ezinbesteko kasuetan izan ezik. Kasu horietan, baita hautatutako pertsonak izendatu aurretik uko egiten dutenean ere, edo kontratua formalizatzeko unean bertan lanpostua gorde gabe eta benetan lanean hasteko aukerarik gabe eszedentzia eskatzen dutenean ere, Giza Baliabideen Sailak, hautaketa-

prozesuaren emaitzak ikusita, beste kontratazio-proposamen bat egiteko eskatuko dio epaimahai kalifikatzaileari, hautaketa-prozesuaren azken emaitzen puntuazio-ordenaren arabera dagokien izangaian alde.

Hamahirugarrena. Aldi baterako kontratazioetarako zerrendak.

13.1. Deialdi hau egonkortze-prozesu berezia da, eta araudi espezifiko batek arautzen du (20/2021 Legea), neurri eta salbuespen partikularrekin. Beraz, ez du sortuko aldi baterako kontratazio-zerrendarik, gaur egun indarrean daudenak ordeztuko dituenik, dagokion eranskinean hala zehazten ez bada.

Hamalagarrena. Gardentasuna eta datu pertsonalak babesteko politika.

14.1. Oinarri hauek, baita horiek gauzatzearen ondorio diren administrazio-egintzak ere, langileak hautatzeko eta aldi baterako kontratazioetarako zerrendak kudeatzeko prozesuetan datu pertsonalak babesteko udal protokoloari lotuta daude.

14.2. Protokolo hori nahitaez ezagutu behar da hautaketa-prozesuan parte hartzeko. Edozein unetan eskura daiteke protokoloa, bai eskabidea egiteko unean —hautatze-prozesuan onartua izateko formularioan—, bai hautatze-prozesuaren edozein unetan, bakoitzari dagokion web-orrian nahiz hautatze-prozesuan web-orriko "Araudia" atalean.

14.3. Parte hartzeko eskabidean bada aukera bat kontratazio zerrenda batean egon daitekeen pertsonak epaimahai kalifikatzaileari baimena eman diezaion identifikazio pertsonaleko datuak eta kontratazio-zerrendan duen hurrenkera beste erakunde batzuekin partekatzeko, kanpoko kontratazio-eskaintzak jasotzerik izan dezan.

14.4. Enplegu-eskaintza publikoaren deialdi hau borondatezko prozesu bat da, eta lehiakorra, eta gardentasuna eskatzen du. Horregatik, beharrezkoa da parte hartzen duten pertsonen identitateak eta proba bakoitzean lortutako emaitzak argitaratzea. Udal eta "Luis Aramburu" Udal Musika Eskola saiatuko dira pertsonak identifikatzeko datuak eta hautaketa-prozesuan lortutako emaitzak sarbide mugatuko eremu batean erakusten, eta behar den denboran soilik.

14.5. Era berean, administrazio-prozesu bat da, eta bertan parte hartzen duten pertsonak sarbide-eskubidea dute. Eskubide hori gauzatzeak esan nahi du prozesuan aurkeztutako dokumentazio pertsonala (azterketak, ziurtagiriak, merezimenduak...) beste izangai batzuentzat eskuragarri egon daitekeela, horretarako ezarritako udal prozeduretan ezarritakoaren arabera.

14.6. Izena emateko inprimakia aurkezte hutsarekin, parte-hartzaileak argi adierazten du prozesuaren gardentasun-baldintzak eta datu pertsonalen babesaren murriztapena onartzen dituela.

14.7. Eskabidea aurkezteak baimena ematen dio epaimahaiari —eta haren izenean Gasteizko Udalari eta "Luis Aramburu" Udal Musika Eskolari— prozesua kudeatzeko beharrezkoak diren kontsultak eta egiaztapenak egiteko, euskararen erregistro ofizialetan, unibertsitate-tituluen eta unibertsitateaz kanpoko tituluen IT txartelen erregistroan eta betekizunei eta merezimenduei erreferentzia egiten dieten guztietan. Halaber, baimena ematen du behar diren egiaztapenak egiteko kasuan kasuko erakundeekin, egiaztatutako lanbide-esperientziari dagokionez.

Hamabosgarrena. Aplikatzekoak diren lege-arauak.

- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa.
- 7/2021 Legea, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kidegoa eta eskalena.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, toki administrazioari buruz indarrean dauden xedapenen testu bategina.
- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoarena.
- 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoaren Eraberritzeko Neurriena.
- 190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen duena.
- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoa.
- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.
- 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (aurrerantzean, 39/2015 Legea).
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasun Eragingarriko.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabeko bizitzarako, gaur egun indarrean dagoen idazketan.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datuen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreaki dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, zeinaren bitartez 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen baita.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.
- 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa.
- 289/1992 DEKRETUA, urriaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoan musika-irakaskuntza espezifikoa, arautu gabea, ematen duten ikastegiaren sorrera eta funtzionamendua arautuko duten oinarriko arauak arautzen dituena.
- Oinarri orokor eta espezifiko hauek.

Hamazazpigarrena.- Aurkaratzeak.

17.1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean adierazitako moduan eta kasuetan aurkaratu ahal izango dituzte interesdunek oinarri hauek, deialdia bera nahiz horren edo epaimahaiaren jardueraren ondorio diren egintzak.

EGONKORTZEKO PROZESU BEREZIA. Eranskina: "Luis Aramburu UMErako deialdiko plazak eta oinarri espezifikoak"**Erabilitako kodeak:****LEPKO:** Deialdiaren kodea**LAKO:** lanpostuaren kodea eta katalogoko erreferentzia-kodea (www.vitoria-gasteiz.org/hautezpenezak)**Taldea:** titulazio-taldea/-azpitaldea (A1 - A2 - C1 - C2 - Beste lantalde profesional batzuk)**% :** dedikazioaren ehunekoa. 100etik gora dedikazio berezia dute.**HE:** lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna:

C1 = 3. HE

B2 = 2. HE

B1 = 1. HE

Nahitaezkoa:

BAI = betekizuna da, eta merezimendu gisa baloratzen da

EZ = merezimendu gisa baino ez da baloratzen

Guztira: ezaugarri horiek eskaintzen diren dotazioen kopurua**Ordain.:** hitzarmenaren arabera: EAEko unibertsitateaz kanpoko irakasleen lan-baldintzak arautzeko akordioa Hala badagokio, lanaldiaren ehunekoa aplikatu.**GT:** gaitasun-taldea (gaitasunen definizioak lanpostuaren katalogoan, www.vitoria-gasteiz.org/hautezpenezak orrian. Alboko menua. Katalogoak. LAKOaren bidez bilatu)**Titulazioak:** sartzeko eskatzen den titulazioa. Baliozkoak dira titulazio baliokideak edo akademikoki homologatuak.**IT txartelak:**Erakunde ziurtatzailea: www.it-txartela.net"Luis Aramburu" Udal Musika Eskolako IT txartelen multzoak: (baliokideak www.vitoria-gasteiz.org/hautezpenezak orrian)

IT05 = Windows XP + Internet oinarrikoa + Word XP oinarrikoa + Excel XP oinarrikoa + PowerPoint XP edo goragoko mailako edo geroagoko bertsioa

EZ = merezimendu gisa baino ez da baloratzen

VGU esp.: Gasteizko Udalean kategoria bereko esperientziatutako hartzeko balio duten lanpostu-kodeak (LAKO).

Kontuan hartuko dira talde berean dauden eta enplegu-planetako lanpostu espezifikoetan eginkizun berberak dituzten lanbide-esperientziak.

Kontratazio zerrendak: Deialdiak aurrekoaren ordezkotako zerrenda BERRIA sortuko duen, lehendik dagoen bat ZABALDUKO duen (zerrenda handitua) edo zerrendarik sortuko EZ duen zehazten du. Gutxieneko puntuazioa: 33 puntu. (13.1. oinarria).

LEPKO	LAKO	Izen laburra (euskaraz)	T	%	HE	Nahitaezkoa	Guztira	Ordain.	GT	Titulazioak	IT txartelak	VGU esp.	Kontratazio zerrendak
EM13	0082	FAGOT IRAKASLEA	A2	50	3	EZ	1	36.472,67	X	Erdi-mailako musika irakasle agiri ofiziala; fagot espezialitatea, edo baliokidea	EZ	0082	EZ